



“Bizikidetza sustatzeko kultura- arteko sare eta plataformak” mintegia urriaren 26an ta 27an Getxon ospatu zen eta berariazko bi lan gune edo une izan zituen non taldeka garatu ziren aurrera egiteko partekatutako hausnarketatik abiatuta.

Zehazki, gure jardueraren esparru anitzak kontuan izanda ideiak kontrajartzen eta kezkek partekatzen saiatu ginen, berritzaileago edo ez diren tresna, metodologia eta beste elementuen abiarazteari dagokionez. Tresna, metodologia eta tresna horiek esperientzia berrien garapena eta gizarte eta hezkuntza-eragile anitzok martxan jartzen dugun bizikidetzarako programa eta proiektuen hobekuntza sustatu ahal dituzte, inklusio soziala eta harrera prozesu eraginkorrak sortzeko.

Horretarako, honako lau bloke edo gai landu ziren:

- Harrera eta gizarte- inklusioa sustatzeko tresnak maila lokalean.
- Elementu berritzaileak gizarte sentsibilizatzeko prozesuak sortzeko.
- Inklusio- guneak eta metodologia berritzaileak herritarren parte- hartzea sustatzeko.
- Ahalduntze- prozesuak immigranteek eta emakumeek osatutako elkarten barruan, berdintasunean oinarritutako kultura arteko bizikidetza sustatzeko.

Open space dinamika antzeko bat abiarazi zen, denbora mugatzeak direla eta desiragarri izan ohi den baino zuzendutagoa. Lau lantalde eratu ziren eta bertaratutako pertsona guztiek talde guztietan parte hartu zuten bere ekarpenak eginez. Lau lantalde horien ideia nagusiak eta gogoeta garrantzitsuenak laburki bildu dira jarraian.

Halaber, bukaerako epigrafe bat dago “Erronkak” izenarekin, non dinamika hau abiaraztearen ondorioz sortutako kezka nagusiak izendatu eta laburtzen diren, baita talde handian antolatutako eztabaidarako bukaera gunearen ondorioz ere, mintegi honen amaiera bikaina bezala izan zena.

Espero dugu dokumentu hau erabilgarri eta inspirazio gertatzea irakurleari eta mintegira joateko aukera izan genuen partehartzaileei.

Laguntzaileak/Colaboran



1.- Lantaldeen deia nagusiak eta funtsezko gogoetak:

1. LANTALDEA_ HARRERA ETA GIZARTE- INKLUSIOA SUSTATZEKO TRESNAK MAILA LOKALEAN

Inklusio prozesuei buruzko bloke nagusi batetan eta, bestetik, harrera prozesuei buruzko beste bloke nagusi batetan banatu genuen lantzeko. Inklusioa esparru batzuetan harrerarekin hibridatu badaiteke ere, harrera politikek bere berariazkotasun izan behar duela uste da.

Harrerari buruzko ideia nabarmenak:

1.- Migratzaileen eta errefuxiatuen harrerarako beharrezko gutxienezko baldintzak ezartzen dituen eremu legala diseinatu behar da, gutxienez toki-eremuetan eta lurraldean dauden gizarte erakundeekiko jadanik dagoen harremanean. Katalunia funtsezko eredua izan daiteke harrerari buruz duen legeari eta garapenari buruzko araudiari esker, bertan garatzen ari den esku-hartzearen errealitatea aintzatetsi duen eremu moldakorra eskaini baitu.

Egia da harrerari buruzko politika publikoak alkatetzak, diputatuek, etab. borondate politikoaren mende daudela. Borondate hori egon ezean, ez dago hel daitekeen inolako eremurik, ezer ez.

2.- Ostatuari dagokionez dauden gabeziei irtenbidea aurkitu behar zaie harreraren funtsezko lehenengo elementu lez, batez ere presio migratzaile gehien dagoen lurraldeetan; Kanariar Uharteak, Hegoaldeko muga edota aireportuak, Madrilgo eta Bartzelonakoa, besteak beste.

3.- Harrerari buruzko politiketan berrikuntza soziala. Badirudi administrazio publikoak eta gizarte-erakundeak direla harrera gune bakarrak baina, pertsonak izan ahal dira harrera eragile aktiboak? Benetan eraldatzaile izan daitezkeen laguntzak sortzeko dinamizazio eta trebakuntza prozesu egokiak izanda, berdinen arteko harreman zuzenak sortuz. “Nik ikastetxean, auzoan, jabeen elkartean eta abarrean hartzen dut”.

Udalerrian “Zurumurrueen aurkako sarea” dagoen era berean, administrazio publikoek eta gizarte-erakundeek egin dezaketena baino askoz ere eragingarriagoa den interbentzioa egingo duen harrerarako eta laguntzarako herritarren sarea egon daiteke. Trebakuntza eta borondate nahikoa duten herritarrak. Hori laguntza birtualarekin osa daiteke, ez bakarrik plano fisikoan. Esparru birtualean oso interesgarri gerta daitezkeen tresnak egon daitezke harrera eta laguntza eredu berriak erraztearren.

4.- Nondik abiatuta diseinatzeko dira harrera politikak? Harrera politiken diseinua mendebaldeko eta erdi mailako klasekoa den gizon zuriaren irizpideetatik abiatuta gauzatzen da eta hori berriz hausnartu behar den alderdi bat da gure gizarteekin harreman estua duen aldagai batekin zerikusi baitu, hau da, karitatea honelako gaitetan esku hartzeko orduan

Laguntzaileak/Colaboran



erabiltzen den ikuspuntua izatea. Horri buruz hausnarketa kritikoa gauzatzea beharrezkoa litzateke.

5.- Sektore pribatuaren erantzukizuna. Gure gizarteen dibertsitate errealari etekina ateratzen dion enpresa pribatuaren erantzukizuna harrera prozesuetan. Dibertsitatea onuragarria da euskarri lez, baina kontratatze baldintzak ezartzean ematen dion abantaila lehiakorrari esker ere bai. Ze nolako erantzukizuna eskatu behar da gizartean?

6.- Harrera elementu transbertsal lez ulertu behar da administrazioan eta zerbitzu publikoetan. Ez da immigrazio eta kulturarteko zerbitzuetan bakarrik konpondu daitekeen auzia, nahiz eta horiek eraldatu dezaketen, ezta immigrazio eta pobreziaaren esparruetan lan egiten duten erakundeen ondare eskusiboa ere. Harreraren zeharkakotasuna gun e guztietara eraman behar da, batez ere administrazioa, ia behar bat balitz bezala. Berriro ere, eremu arauemailearen falta mugatze nagusia gertatzen zaigu. Genero berdintasunean egindako lanaren garapena eta aurrerakuntzari heltzen zaio harreraren esparrua garatzeko eta, horrela udalaren eta administrazioen apustu argiaren beharra gailentzen da. Sistemak, protokoloak, helburuak eta neurtu daitezkeen adierazleak egon behar dira hainbat esparrutan, (kultura, kirola, enplegua...) eta ez bakarrik gizarte-zerbitzuetan. Transbertsala da.

7.- Berrelkartuko diren familientzako berariazko ikuspuntua. Kasu horietan, hasierako migrazioetan gertatzen ez den errealitatea dago, hau da, familia barneko banatze prozesu oso gatz eta luzeei buruz ari gara eta gutxienez bost urteko denbora tartea behar izango dira berrelkartze formala lortzeko. Berariazko ikuspuntu honetan Bartzelonan jarri dezakegu gure arreta, udan garatzen den "En verano Barcelona te acoge" (Udan Bartzelonak hartzen zaitu) harrera programan. Berrelkartzetan kalteberagoa den kolektiboarekin lan egitean datza, hau da, adingabeak. Asia gun eak, kulturara, kirolara , berdinen taldera et abarrera heltzea.

Nabarmendutako ideiak inklusioari buruz:

1.- LANBIDE bitartez lan esparruan gauzatutako laguntza eta inklusioa. Pertsonen inklusiorako enplegua funtsezko faktorea izaten jarraitzen du. Gaur egun, badago sentsazioa LANBIDEk arreta gehiago jartzen duela inklusio politikengan diru-sarrerak bermatzeko errenten bidez (DSBE). Horrek kudeaketa guztiz hartzen du eta enplegu politika aktiboak martxan ez daude. Etorkin Atzerriarrei buruzko Inkestaren arabera (EABI), lan-mundura sartzeko berariazko politikei buruz hausnartu beharko den kolektibo batzuekin, adibidez, Magrebeko adingabeak edo Saharaz hegoaldeko komunitatea, bertan bazterketa gun e errealak baitira. Lan-mundura sartzeko berariazko politikak diseinatu eta sustatu.

2.- Beste elementu bat kulturarteko bikoteak dira, eragileen sarearekin lotzen dena eta hizkuntza eskuratzearekin eta eremu pertsonal aberatsa izateko aukerarekin zerikusia duena.

Laguntzaileak/Colaboran



3.- Nondik abiatuta diseinatzeko dira inklusio politikak? Karitatearen planteamenduen berezko bertikaltasunetik edo solidaritateetik. Eztabaida hau aurretiaz aipatutako harrera politiken diseinuarekin lotzen da. Berriro ere, gure mendebaldeko ikuspuntu patriarkala da inklusioa zer den edo ez den zehaztuko duena, edo solidaritateetik sortutako harreman horizontalagoetan pentsatu behar dugu, etab.

4.- Akulturaziorik gabe harremanak sortu bertako pertsonen eta atzerriarren artean eta gero eta biziagoak eta aldian behingokoak diren harremanen sorreran. Loturak sortu akulturazio prozesuak sorrarazi gabe.

5.- Funtsezko beste auzi bat fase aurreratuago batetan, beharbada, tituluen homologazioa eta baliozkotzea da. Inklusio soziolaboral handiagoa eta maila-igoera soziala eta profesionala sustatu.

6.- Nazionalitatea lortzeko lagundu eta herritartasun eskolak sortu, baina ez bakarrik atzerriarrentzat, herritartasun eta modelo berri baten aldeko apustua egiten duen kolektiboarentzat baizik. Estatus juridikoa oso garrantzitsua da nazionalitatea gabe existitzen ez diren bideak zabaltzen baititu.

2. LANTALDEA_ELEMENTU BERRITZAILEAK GIZARTEA SENTSIBILIZATZEKO PROZESUAK SORTZEKO

1.- Hitzaldi markoan José Ramón Sobrónek nola, batzuetan, partehartzeak aurrezte bihurtzen zela hausnartu zuen, eta ikuspuntu ekonomikotik hori oso berritzailea zela nabarmendu zen. Eraginkortasunean eta efizientzian oinarritutako eta aurrezte ekonomiko lez itzulitako ikuspuntu honek ze nolako pisua izan behar duen aurkezteko gure moduan edo prozesu batzuk sustatzeko orduan, partaidetzan hartzen diren erabakiak hartzean, besteak beste, mahaigaineratu zen gure taldean.

Ze neurritan ikuspuntu ekonomikotik partaidetza-prozesuetara hurreratzeak sensibiltzazioarekin eta konbentzitzearekin bat egiten du edo, zuzenean, borondateak erostea da.

2.- Elementu berritzailea prozesu mota honetan politikoen benetako konpromiso erreala eta zintzoa izan daiteke. Hori benetan berritzailea izango litzateke. Ze neurritan gizartearekin zerikusi duten gai horiek herritarren parte-hartzeari zabaltzea gezurrezkoa eta itxurazkoa da, edo ea benetako den. Batzuetan aurretiaz erabakita dagoen zerbait erabakitzeko parte hartzen dugularen itxura egon daiteke, eta parte-hartzea itxurazkoa baino ez dela eta garrantzirik gabeko zerbaiti buruz erabakitzen dela eta ez funtsezkoa den edozerri buruz. Gauza da ekonomikoa ez izatea hain garrantzitsua, partaidetzaren bideak irekitzea baizik, eta hori modu eraginkorrean egitea, hau da, ezartzea ze baldintzatan har daitekeen parte, norarte heltzen den erabakia eta ea zure erabakia zerbaitetan bihurtzeko aukera errealistatik ba al dagoen eta

Laguntzaileak/Colaboran



zure erabakia kontuan hartzen den. Errefortzu horrek jende apatiatik atera ahal du erabakiak hartzeko prozesu horietan parte-hartzeak zerbaitetarako balio duela ulertu eta ikusten duen neurrian.

3.- Horrez gain, prozesu horiek ikasketa prozesuak bezalakoak izan beharko lirateke. Hau da, ez da posible zerotik guztira pasatzea ez baldin badago ikasketa prozesu bat, non ezagutu ditzakegun gaiei buruzko prozesu eskuragarrietan parte hartzen dugun eta horiei buruz oinarri sendoak duten iritziak sortu ditzakegun eta ez burutazioak soilik. Eskuragarri diren eta partaide izan ahal garen dinamika horietan dinamika horietatik aldenduen daudenek parte har dezatela ahalbidetzea, desabantailan dauden kolektiboak, adibidez, gazteak edota beste motatako taldeak. Partaidetza prozesu erreal eta eraginkorrei buruz ari gara.

4.- Eskolaren eta hezkuntza-esparruaren gaian bi bide egon dira: lehenengoak ikastetxeetan hezkuntza proiektuetatik sensibilizazioa lantzearen aldekoa da konpromisoa eta gizarte-sensibilizazioa haurtzarotik sustatzeko. Hori garrantzitsua bada ere, komunitate osoarekin lan egin behar da, umeek ez baitute soilik erreferente lez bere irakasleak; familiak, monitorea, kaleko beste pertsonak, beste haurrak eta abar baizik. Hori dela eta, arreta guinea zabaldu behar da komunitate osoa hartuz, nahiz eta umeak azkeneko hartzaileak badira ere.

Komunitate-filosofia hori duten proiektuak eta ikasketa komunitateak non eskola kalera zabaltzen den eta kalea eskolara garatzean datza, aldizkako saioak alde batera utzita hezkuntza faktore bezala. Ikasketa komunitateen modeloaren balioasuna nabarmentzen da, bai eskola-porrot eta abarreko adierazle altua duten ikastetxeetan bai, a priori, arazo nabariak ez dituzten ikastetxeetan.

Bigarrenik, eskoletan eta komunitateetan egiten diren interbentzioetan garatzen den lanari buruz berriz hausnartu beharko litzateke. Migrazioetan ziklo aldaketa dago eta oraindik tresna berberak erabiltzen ditugu, prozesu berberak...

“Zurrunmurruek aurkako eragileak” horren adibidetzat erabiltzen dira: nola jarraitzen dugun lantzen eta konbentzitzen produktua erosi ez diozuna. Jadanik adostuta daudenak. Gure buruekiko kritiko izan behar gara eta hausnartu ea egiten duguna “erosotasun” maila bat dela eta, edo orain arte funtzionatu duena izan delako. Ingurua, hartzaileak eta testuingurua aldatzen doala buruan izan behar dugu. Prozedura aldatzen doan era berean, tresnak aldatzeaz ere ari gara eta honako hauek iradoki dira; besteak beste:

-Filosofia eta orokorrean humanitateen irakasgaiak berreskuratu, jendeari ikuspuntu humanistatik ulertzen eta pentsatzen laguntzeko.

- Artearekin era kultuarekin lotura duten tresnak erantsi sensibilizazio formula lez.

- Teknologia berriekin lotura duten tresna berriak, bideo biralak, aplikazio informatikoak... beste kolektibo eta publikoari lotutakoak eta bere hizkuntza eta erritmora moldatutako tresnak erabili behar dira.

Laguntzaileak/Colaboran



3. LANTALDEA_ INKLUSIO- GUNEAK ETA METODOLOGIA BERRITZAILEAK HERRITARREN PARTE- HARTZEA SUSTATZEKO

1.- Erabilera berriak izan ditzaketen guneak kontuan izan barik, gune berrien sorkuntzari buruz hausnartu.

Berdintasunetik sortzen diren guneak sustatu behar dira. Gure posiziotik beste pertsonak parte hartzera gonbidatzen ditugunean, nagusitasun jarrera batetik egiten dugu.

Betidanik herritarren parte-hartze gune izan diren gune publikoak berreskuratu behar dira eta gune horiek dinamizatu.

2.- Identitatea, partaidetza sentimendua sorrarazten duten guneak sortu.

3.- Askotariko arte-hartzea: partaidetza forma guztiak sartu.

Partaidetza forma guztiak berdinak ez direla jakinda eta hori errespetatuz, formula guztiak sartzen saiatu behar gara.

Partaidetza hori moldatu eta zaindu, hau da, pertsona guztiak doazen gunea sortu nahi badugu, bai gunea bai bertan hitz egingo den gaia eta modua ikuspegi integratzailetik egingo dela bermatu behar da pertsona guztiak joan daitezen: ordutegiak kontuan izan, haurtzaindegi zerbitzua izan, gunea doituta egotea, etab. Faktore asko hartu behar dira kontuan partaidetza errazteko.

4.- Partaidetzarako estrategiak: herritarrak antolatu erabakitze guneetan parte har dezaten.

Oinarritik partaidetza kulturarik ez dago eta partaidetzaren kulturean hezte beharrezkoa da, pertsonak ez baitute beraiek bakarrik, inoren laguntzarik gabe, gune zehatzetan parte-hartzen. Interesgarria da administrazioaren rola kontuan hartzea: ze gune uzten zaizkigun parte hartzeko, zer espero den herritarrengandik, administrazioak partaidetzari buruzko ze kontzeptu izan ohi duen...

5.- Herritarrak bere osotasunean ulertzea.

Batzuetan eduki eta formari buruzko erabaki batzuek herritarren zati bat automatikoki baztertzen dute. Xehetasunak zaindu behar dira askotariko partaidetza sustatzearren.

Laguntzaileak/Colaboran



4. LANTALDEA_ AHALDUNTZE- PROZESUAK IMMIGRANTEEK ETA EMAKUMEEK OSATUTAKO ELKARTEEN BARRUAN, BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO KULTURA ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEKO

1.- Erakundeok aitzindaritzatik abiatuta egiten dugu lan, galdetu eta ikertu behar dugu kolektibo zaurgarriek bilatzen dutenari buruz.

Pertsona eta elkarte migratzaileekin lan egiten duten erakundeek eta gizarte eragileek autokritika egin behar dute, gidatzen eta irakasten saiatzen dira eta, baina inposizio sentimendu batetik eginez. Ez da egiten pertsonak benetan nahi dutena, aitzindaritzaz argia erabiltzen da. Hausnarketa horretatik abiatuta, etorkinek, kolektibo zaurgarriek, zer nahi duten jakiteko eta entzuteko beharra sortu da.

2.- Interakzio erreala sustatzen duten bertakoen eta etorkinen arteko guneei buruz beste modu batetan erabili.

3.- Emakumeek eta etorkinek naturalki erabil ohi dituten guneez baliatu beraingana heltzeko. Jadanik eskaintzen duten sare naturaletaz baliatu.

Hortik abiatuta bertakoen eta etorkinen arteko beste guneez batzuk sortu daitezke naturalki. Aldizkoak ez diren jarduerak garatu, sarea sortzen duten prozesuak garatu eta ez aldizko jarduerak soilik direnak.

4.- Ahalduntze beharrezkin lotuta, honako hausnarketa hau sortzen da: non ezartzen dugu lehentasuna duena?, heltzen diren pertsonen oinarritzko beharrei erantzutean edo ahalduntze prozesuei buruz hitz egiten zaie aktiboak izatea eta prozesuetara sartzeari eskatuz... Beste ikuspuntu batek guztia beharrezkoa dela ezarriko luke eta ez dela komeni eta ezin dela inolako beharrik baztertu. Ikuspuntu integrala izan behar da behar ezberdinak integratzeko.

5.-Emakume migratzaileek pairatzen duten diskriminazio bikoitza kontuan izan eta horrek elkartze- eta lan-mundura sartzeari eragozten du. Jadanik parte hartzen duten guneez erabili. Adibidez, ikastetxea ahalduntze eta elkartrukerako guneez bideratu.

6.- Aurreko ideiarekin lotuta, biktimizazio gabeko guneez seguruak bilatu behar ditugu. Atzeritarrek askotan pairatzen duten bakardadea, isolamendua edota autoestimua txikiari aurre egin eta segurtasuna transmititu, aukerak eskainiz ere. Pertsona horiek ekartzen duten ondarea eta aurre egin behar izan dituzten egoera latzak ulertu eta horren balioa azpimarratu, biktimizazioan erori gabe .

7.-Emaiz eta adierazleetan hainbat arreta ez jarri eta prozesuei denbora gehiago eskaini. Harremanak izateko, komunikatzeko denbora izatearen garrantzia. Guztien bizikidetzarako guneez jaulki egin behar du. Bizikidetzarako guneez horren sorrera eta formakuntza lagundu eta erraztu behar dugu, baina ezer behartu gabe. Batzuetan, emaitza bat lortzeko eta adierazle

Laguntzaileak/Colaboran



batzuk neurtzeko beharra dela eta, helburu nagusia ahazten dugu. Erlaxatzea eta bata besteari hurreratzea beharrezkoa da konfiantza hori sortzeko denbora emanaz. Bata bestea epaitzeari utzi behar diogu, baina lekuan geratu gabe.

8.- Etorkinei bakoitzaren neurria egindako hurreratzeak egiteko beharra, pertsona bakoitzaren egoera zehatza eta kasuistika ulertuz.

9.- Aurrera egiten jarraitzeko bi oinarritzko ondorio: lehenengoa, desabantailak abantaila bihurtzen saiatu gune berriekekin sare handiagoak sortzeko; bigarrenik, elkarguneak bilatu.

2.- Erronkak:

1. Toki-administrazio publikoen engaiamendu sendoak eta alderdiekin zerikusirik gabekoak: migratzaile eta errefuxiatuen harrera gauatzeko gutxienezko baldintzak ezartzen dituen eremu legala diseinatzearen beharra, gutxienez toki-eremuetan eta lurraldean dauden gizarte erakundeekiko jadanik dagoen harremanerako.
2. Berrikuntza soziala harrera politikan: herritarren parte-hartzea. Auzo-mugimendu eta sareen sorrera harrera prozesuak errazteko, administrazio publikoak eta gizarte-izaera duten beste erakundeek gauzatutako lana alde batera utzita.
3. Harrera elementu transbertala lez ulertu eta landu behar da administrazioan eta herri-zerbitzuetan: ez da immigrazio eta kulturarteko zerbitzuetan bakarrik konpondu behar den auzia, nahiz eta horiek eraldatu dezaketen, ezta immigrazio eta pobrezia-aren esparruetan lan egiten duten erakundeen ondare eskusiboa ere. Harreraren zeharkakotasuna gune guztietara eraman behar da. Berrirori ere, eremu arauemailearen falta mugatze nagusia gertatzen zaigu.
4. Lan-mundura sartzeko politikak diseinatu eta sustatu: enplegu politika aktiboak martxan jartzeko beharra inklusio soziala sustatuz. Gizarte-bazterketa arriskuan dauden kolektiboentzat lan-mundura sartzeko berariazko politikak diseinatu behar dira.
5. Herritartasun eskolak sortu, baina ez bakarrik atzeritarrentzat, herritartasun eta modelo berri baten aldeko apustua egiten duen kolektiboarentzat baizik.
6. Herritarren parte-hartze prozesu eraginkorrak sortu: partaidetzaren bideak ireki eta hori modu eraginkorrean egitea, hau da, ezartzea ze baldintzatan har daitekeen parte, norarte heltzen den erabakia eta zure erabakia zerbaitetan bihurtzeko aukera errealistatik ba al dagoen eta zure erabakia kontuan hartzen den.
7. Parte-hartze prozesuek, bere aldetik, aurretiko beste ikasketa prozesu bat izan beharko luke: ikasketa prozesu horrek prozesu eskuragarrietan parte hartzera behartzen gaitu hasieran ezagutu ditzakegun gaiei buruzkoak, eta horiei buruz oinarri sendoak duten iritziak eta irizpideak sor ditzakegun.
8. Eskola-esparruan ikuspuntu komunitarioa sustatu: filosofia komunitariotik abiatuta proiektuak garatu, baita ikasketa komunitateetatik ere, non eskola kalera zabaltzen den eta kalea eskolara, hezkuntza faktore bezala aldizkako saioak alde batera utzita.

Laguntzaileak/Colaboran



9. Kulturarteko bizikidetzarako gunek berriak sortzeko jadanik existitzen diren guneen erabilera aldatu: berdintasuna sustatzen duten gunek sortuz eta ez nagusitasun jarreretatik abiatuta.
10. Kulturarteko partaidetza sustatu: xehetasunak zaintzeko beharra, aurretiko elkarrizketa sortu partaidetza zer den jakiteko eta askotariko partaidetzarako bideak nola ezarri eta zabaldu daitezkeen, identitate kultural gehien hartuta. Gure erosotasun-gunetik irten besteari hurreratzeko.
11. Etorkinek naturalki erabil ohi dituzten guneez baliatu beraingana heltzeko. Jadanik eskaintzen duten sare naturaletaz baliatu.
12. Gure praktika kritikoki aztertu: batzuetan, eduki eta formari buruzko erabaki batzuek herritarren zati bat automatikoki baztertzen dute. Xehetasunak zaindu behar dira askotariko partaidetza sustatzearren.
13. Emakume etorkinak pairatzen duten diskriminazio bikoitzaren inpaktua murrizten saiatzeko egiten ditugun ahaleginak bikoiztu: beraingana hurreratzeko modua bilatu bere denbora libre, aukera eta egoeraren arabera. Gu geu moldatu.
14. Denbora eta epeen garrantzia: prozesuek denbora eta ardura behar dituzte. Aldizkakoak ez diren jarduerak garatu behar dira, epe ertain eta luzean sarea sorrarazten duten prozesuak ezarri eta ez aldizkako jarduerak soilik izatea.

Matizeko taldea orrialde hauetan mintegian zehar partekatutako aberastasun guztia islatzen saiatu da. Horretarako, partekatutako edukia xehetasun gutxien galtzen eta zehaztasun gehien islatzen saiatuz, partaide guztien interbentzio ezberdinak zehaztasun gehienez jaso dugu. Espero dugu horri esker errazago ulertzea eta partekatutako ikasketa eta elkar trukaketa ariketa honetan aberaste prozesu zabalagoa sustatzea.

Laguntzaileak/Colaboran

